



Orioko Hiri Antolamenduko
Plan Orokorra lantzeko
parte-hartze prozesua
-lehen fasea-

Nolako Orio nahi duzu 2030. urtean?
Etxebizitza gehiago behar ditugu?
Ba al dugu nahiko azpiegitura eta espazio libre?
Nola egin Orio jasangarriago?

Aldian behin komeni da geldialdi bat egin eta pentsatzen jartzea zer nahi dugun etorkizunerako. Hirigintzaren alorrean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bitartez egiten du hori Udalak. Dokumentu horrek zehazten du zein izan daitekeen herriaren garapena datozen urteotan.


Orioko Udala Plan Orokor berria ari da lantzen eta, lanketa horretan, **Orio 2030** parte-hartze prozesua abiatu du, herritarrek aukera izan dezaten beren iritziak azaltzeko eta ekarpenak egiteko.

Udalak lehiaketa publiko baten bidez erabaki zuen Plan Orokorraren lanketa teknikoa Santi Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak osatutako taldeari adjudikatzea. Talde tekniko horrek aztertu du zer egin daitekeen herriko zenbait eremu hobetzeko eta herritarren biharko premiei erantzuteko. **Orio 2030** parte-hartze prozesuaren barruan, hainbat aukera aurkeztuko dituzte bilera irekitan eta, ondoren, herritarrek egindako ekarpenak bilduko ditu Udalak, udalbatzarraren onarpena jasoko duen dokumentua osatzeko.

Orioko Udala

Lan teknikoa:

Santi Peñalba arkitektoa
Manu Arruabarrena arkitektoa
Mikel Iriondo abokatua



Otsailak 17

asteartea, 20:00etan

**Planaren
azalpen
orokorra**

Otsailak 24

asteartea, 20:00etan

**Planaren
azalpena,
eremu**

Martxoak 3

asteartea, 20:00etan

Mugikortasuna

Martxoak 10

asteartea, 20:00etan

**Dotazioak eta
espazio libreak**

Martxoak 12

osteguna, 20:00etan

**Natur
baliabideak
eta lurzoru
urbanizazina**

Orio 2030 parte-hartze prozesuaren lehen fasean bost bilera ireki egingo dira kultur etxean (ikusita alboan).

Bilera horietan ahalik eta jende gehien parte hartzea nahi luke Udalak. Lehenbiziko bileran gaiaren azalpen orokorra egingo du talde teknikoak eta gainerakoetan kontu espezifikagoez arituko dira. Ez dira izango adituentzako bilerak, baizik-eta edozein herritarrentzako modukoak. Gaiarekin interesa izanez gero, edozeinek ulertu eta segitu ahal izango ditu azalpenak, eta guztiek izango dute aukera iritzia emateko.

Aldizkaritxo honetan kultur etxeko lehen bi saioetan landuko den informazioaren laburpena jaso dugu. Gainontzeko saioetarako informazioa bileran bertan eskuratu ahal izango da.

Plan Orokorra onartzeko prozedura


Orioko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren **aurrerapen dokumentua** landu du eta aho batez onartu du jendaurrean jartzea hiru hilabeteko epean (bulego teknikoan dago ikusgai dokumentua eta, baita ere, orio.eus webgunean). Epe hori aurtengo maiatzean bukatuko da. Bitarte horretan **Orio 2030** parte-hartze prozesua abiatuko du eta edozein herritarrek izango du proposamen idatziak aurkezteko aukera (udal bulegoetan aurkeztuta edo orio2030@orio.eus helbidera idatzita).

Ondoren, aurkeztu diren proposamen guztiak aztertuta, horiei buruzko erabakiak hartuko ditu Udalak eta, horrela, **lehen onarpeneko dokumentua** onartuko du udalbatzarrean. Dokumentu hori berriro jarriko da jendaurrean eta herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izango dute; horrez gain, eskumena duten erakunde publikoei bidaliko zaie, dagozkien txostenak egin ditzaten.

Behin herritarrek egindako alegazioak aztertu eta Udalaz gaindiko erakunde publikoen txostenak ikusita, **behin-behineko dokumentua** onartuko du udalbatzarrak. Orduan aterako da dokumentua herritik eta, Eusko Jaurlaritzak aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu beharko du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emango dio **behin betiko onarpena** Plan Orokorrari.

Prozesua osotasunean amaitu arte hiru bat urte pasa daitezke, eta Udalaren asmoa da herritarren parte-hartzea prozesuaren fase guztietan bermatzea.



DIKE



1. aukera

- Gaur egungo Plan Orokorrak jasotzen duena da. Bi eraikuntza lerro proposatzen dira. Guztira, bizitegi erabilerarako 13.863m²(t).
- Etxebizitzak etxabea+4 eta etxabea+2 artekoak lirateke.
- 150 etxebizitza inguru aurreikusten dira.

1



2. aukera

- Aukera honetan bizitegi erabilerako 18.000m²(t) aurreikusten dira.
- Etxabea+4+TPko etxebizitza profilak izango lirateke.
- 200 etxebizitza inguru aurreikusten dira.

2



3. aukera

- Aukera honetan 22.550m²(t) aurreikusten dira bizitegi erabilerarako.
- Arozena eraikinari dotazio publiko izaera emango litzaioke.
- Etxebizitzak etxabea+4+TP eta etxabea+11ko dorre bat izango lirateke.
- 250 etxebizitza aurreikusten dira.

3

PALOTAK

1

1. aukera

- Lehenengo aukera gaur egun bezala uztea da: momentuz garatu gabe.



2

2. aukera

- Eremua guztiz garatzea proposatzen da dentsitate altuekin.
- Guztira, bizitegi erabilerarako 69.000m²(t) aurreikusten dira.
- Etxebizitzaren profilak etxabea+4+TP izango lirateke.
- 766 etxebizitza aurreikusten dira.




3

3. aukera

- Eremua partzialki garatzea proposatzen da, zati bat erreserbarako utziz.
- Garapen proposamen honetan, bizitegi erabilerarako 22.500m²(t) aurreikusten dira.
- Etxebizitzaren profilak etxabea+3 izango lirateke.
- 250 etxebizitza aurreikusten dira.




MUTIOZABAL



1. aukera

1

- Gaur egungo Plan Orokorrean onartutakoa litzateke.
- Gaur egungo ordenazioa litzateke, baina Arin y Embil eta Mutiozabal ontziolaren atzeko eraikinetan ordezkatzeko proposamena egiten da.



2. aukera

2

- Zonalde guztia eraldatzea proposatzen da, eremua bi kota desberdinetan garatuz eta errio aldera ibai-parke bat eratuz.
- Bizitegi erabilerarako 7.742m²(t) aurreikusten dira.
- Etxebizitzaren profila etxabea+4 izango litzateke.
- 86 etxebizitza inguru aurreikusten dira.



3. aukera

3

- Eraldaketa bideragarriagoa izan dadin, gaur egungo bizitegiko eraikinak mantenduko lirateke eta Mutiozabal ontziola ere mantentzea proposatzen da.
- Bi kota desberdinak mantenduko lirateke eta ibai-parke bat ere egingo litzateke.

PILOTALEKUA

1

1. aukera


- Gaur egungo Plan Orokorrean jasotako proposamena da.
- Zonalde horren biziberritzea planteatzen da. Frontoia tokiz aldatu eta barruko kale bat irekitzen da. Frontoi estali txiki bat ere kokatzen da eta, sestra azpian, garaje plaza batzuk sortzeko aukera aurreikusten da.
- Bizitegi erabilerarako 2.673m²(t) aurreikusten dira.
- Eraikinen profila etxabea+4+TP izango litzateke.
- 30 etxebizitza egitea aurreikusten da; eta 60 bat garaje-plaza.



2

2. aukera


- Zonalde horren biziberritzea planteatzen da. Frontoia aldatu egiten da tokiz. Sestra azpian garaje plaza batzuk sortzeko aukera aurreikusten da.
- Bizitegi erabilerarako 2.960m²(t) aurreikusten dira.
- Eraikinen profila etxabea+4+TP izango litzateke.
- 33 etxebizitza egitea aurreikusten da; eta 60 bat garaje-plaza.




3

3. aukera

- Zonalde horren biziberritzea planteatzen da. Frontoia aldatu egiten da tokiz. Sestra azpian garaje plaza batzuk sortzeko aukera aurreikusten da.
- Bizitegi erabilerarako 4.000m²(t) aurreikusten dira.
- Eraikinen profila etxabea+4+TP izango litzateke.
- 44 etxebizitza egitea aurreikusten da.




AIZPERRO



1. aukera

- Gaur egungo Plan Orokorrean jasotako proposamena da.
- Aizperro aldean, autopistako sarreraren inguruan, industrialde bat eraikitzea aurreikusten da.
- Proposamen honetan industria erabilerarako 36.000m²(t) aurreikusten dira.

1



2. aukera

- Zonalde honetan ezer ez egitea proposatzen da eta, beraz, industrialderik ez egitea.

2

Parte har ezazu
Orio 2030 prozesuan!!